

Artilea

B.: ile ta iliak e ordian sosa iten zin ordian, oai yeus ez du balio bana, ordian iliak balio zin sosa, iten zen ile, bakarretan entzun duu haurrian, eta etxian ta baizu, epizerietan ta, maasinetan, baizu, gauzak hartu ta paatu bear ta, “ba oai ile sariak e altxatuko inxtantian” ta oai zazi ile sarien, oai iliak erratzen dira, oai yeustako ez dira iliak, ez du sosa ez dute balio. Frantzian pasatzen zen ile anitz, doaike bazen tira geio, ilia bazuken doaike, anitzetan, baakit, huna jinik ta zonbait aldi gertatu izan da karabineroek harrapatzia re pasatzian, bixtan dena pasazaleak eskapatzen ziela bana, ez ardura bana, badakit aldi bat seurik arrapatuik, ba hola da.

E.: galtxa motxak aipatu tuzu oixtiotan. Galtxa motxak artileaakin iten zien.

B.: bai, ba orik iten zuten ez maztek, gizonek e, ta leenik iruten zuten, eta ilia iruten zuten eta, ile paketa at, xaku baten barnian edo ez dait, eta geo ile ua beti tira, tira, tira, hariain iteko eineano ta gero, eztait nola zin izena, ori, tra, tragadela o olako zeait zin izena, eta bazen zurezko at, ori xiriño at eta erdian, xiri luxe at, ua ua zur... zurezkoa zen ua, ta hartan biltzen zen hari ua, ta ua inguat, ta harek iten zin haria, baizu, inguatzen baitzen, ordian, ua, aria, nik ez nin sekula kasi nik ori ola, kusi ut nola iten zen, ordian delako zurezko artan, inguatzen zen, hari pilota iten zen, eta emeki-emeki-emeki, eta gero, eta galtza-arrotzekin iten zien eta galtza motzak, bazien... anitz artzainek iten zuten leen ori.

E.: adinetako artzainek?

B.: ba bo ba, hortxe bazen, emen jatsagune, ez dakit badakizun, oai Benttaingo etxolat eta, hor bazen, Lasa-Kaidorrenekoa zen, Joanes zen, iziarriko ustagile ederra, ardi ustagile ederra, ta galtza motz iten artzen zen beti, iziarriko gustia zin ori, ta nik kusi ut ura ta, galtza motz iten ta, berdin ziratzien ere baitzien galtza motzak ta, kartzen zuzten, kartzen zazkoten, baizu, jostera aren ta, iliaikin iten zitin, hortako...

E.: etxean ari zen hortan?

B.: etxolan, etxolan, etxolan, hor.

E.: gizonek ere iruten zuten?

B.: bai, gizonek iten zuten komonzki. Artzainek komonzki iten zuten ori. Nik ez dut sekula kasi... ez niz sekula aizan ni, na ba, ta delako erran baitut lasarra zen ba, Lasa-Kaidorrenekoa zen delako Joanes ori, ta ori, iziarriko gustia zin ortan, ta iruten, ta galtza motz iten ta usta egiten ta, joaren bei zartzen ta... ikaragarriko ustagile ederra zen, unts iten, ta denak gakoekin iten, ganitaikin e gako xilo guziak, bana zinez untsa e, untsa, bazin jestia hortako, kust onek eta, kutsia usta ederrak e ak inik ba, ala da.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala